

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

243. zenbakia

Data 2012-12-21

2 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-DIPUTATU NAGUSIA

2012ko abenduaren 18ko 9/2012 FORU ARAUA, Ogasun eta Finantza Departamentuan ARRISKU

BEREZIKO ZERGADUNEN ERROLDA sortzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2012ko abenduaren 18ko 9/2012 FORU ARAUA, Ogasun eta Finantza Departamentuan Arrisku Bereziko Zergadunen Errollda sortzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «2012ko abenduaren 18ko 9/2012 Foru Araua, Ogasun eta Finantza Departamentuan Arrisku Bereziko Zergadunen Errollda sortzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2012ko abenduaren 18a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia.
(2868) (11755)

HITZAURREA

Ogasun eta Finantza Departamentuaren betebeharrak eta helburu nagusietako bat da zerga iruzurraren aurka ahalik eta ahaleginik handiena egitea. Helburu hori bilatzea are garrantzitsua da egungoa bezalako krisi egoera gogor eta luze batean. Izan ere, horren ondorioz, baliabide publikoen benetako arazo bat sortzearekin batera, herritarren artean zabaltzen da zerga iruzurra handia izateari buruzko iritzia eta iruzurraren aurka eraginkorrak izateko exigentzia handiagoa.

Hortaz, garrantzitsua da zerga iruzurrari aurre egiteko ekintzak areagotzea eta, horretarako, kontrol sistemak gehitzen eta hobetzen laguntzen duten ekintzak eta hobekuntzak kontuan hartu behar dira, helburu hura lortzeko bidean aurrera egite aldera.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga Egiatzapeneko 2012ko Plana oso tresna garrantzitsua da, eta Zergen Foru Arau Orokorrean jasota dago. Planaren irizpide nagusien arabera hartu beharreko neurrien artean, arrisku zantzu objektiboak agertzen dituzten zergadunen errolda bat sortzeko foru arau baten onarpena aipatzen da; eta errolda horren erabilera barrukoa eta murriztua izango litzateke. Irizpide orokorrean buruzko agiriaren bertan espresuki jasotakoaren arabera, eremu horretako ahaleginik handiena arrisku zantzu objektiboak agertzen dituzten zergadunekin egin behar da, eta, horretarako, alarma sistema bar ezarriko da, balizko iruzur jarduketan aurreikuspenetarako neurriak hartzeko helburua duena eta foru arau baten bidez erregulatuko dena.

Konpromiso horri erantzuten dio foru arau honek, Ogasun eta Finantza Departamentuan arrisku bereziko zergadunen errolda sortzen duenak.

Erroldan inskribatzeak zerga araudian jasotako ondorioak izango ditu. Dena den, foru arauak berak erroldako inskripzioaren bidez gertatu daitezkeen bi ondorio mota jasotzen ditu, geroago arau aldaketarik egin beharrik gabe. Alde batetik, erregistroan inskribatuta egotea zerga egiatzapeneko planetan sartzeko arrazoia izan daiteke. Eta kautelazko neurriak hartzeko arrazoia ere izan daiteke kudeaketa, ikuskapen edo zergabiltzeta prozedura batean.

Foru arauaren lehen artikuluan, errolda sortu eta Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiari atxikitzen zaio. Bigarren artikuluan, aldiz, erroldan inskribatu daitezkeen zergadunak zehazten dira. Hirugarrenean, erroldan inskribatzearen ondorioak azaltzen dira (lehenago aipatuta daude). 4. artikuluan, inskripzioen deuseztapena eragin dezaketen kasuak aipatzen dira. Eta, azkenik, 5. artikuluan espresuki adierazten da, bestela ezin baitzen, errolda datu pertsonalen babesari buruzko legerian eta Zergen Foru Arau Orokorrean jasotako berme eta baldintzei lotuta dagoela.

Era berean, foru arauaren amaierako bi xedapenak araugintzako ahalmena emateari eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabetera indarrean jartzeari buruzkoak dira.

1. artikulua. Arrisku bereziko zergadunen errolda sortzea eta atxikitzea.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuan arrisku bereziko zergadunen errolda (ABEZE) izeneko sortzen da, Zerga Administrazioako organoen jarduerarako lagungarri den errolda ez-publiko bat izateko asmoz.

2. Errolda hori Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak kudeatuko du, eta bertan ondorengo 2. artikuluan jasotako zirkunstantzietan dauden pertsonak eta entitateak inskribatu ahal izango dira.

2. artikulua. Arrisku bereziko zergadunen erroldan inskribatzea.

Arrisku bereziko zergadunen erroldan, zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsonak edo entitateak inskribatu ahal izango dira:

a) Herri Ogasunaren aurkako edozein delit urengatik inputatutakoak (Zigor Kodearen II. liburuko XIV. tituluan aurreikusitakoengatik).

b) Herri Ogasunaren aurkako edozein delit urengatik kondenatutakoak (Zigor Kodearen II. liburuko XIV. tituluan aurreikusitakoengatik), edo beste delitu batzuegatik epai bidez Zigor Kodearen 33. artikuluko 3.m) edo 7.f) apartatuetan aurreikusitako zigorretara kondenatutakoak.

c) Identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetu zaienak.

d) Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga egiaztapeneko prozedura berean gutxienez hiru saio egin ondoren, jakinarazpenik jaso gabe geratutakoak.

e) Zergen Foru Arau Orokorren 190. artikuluan aurreikusita dauden ez-diruzko zehapenetako bat administrazio ebazpen irmo bidez jasotakoak.

f) Zergen Foru Arau Orokorren 42. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoa aplikatuta erantzule solidariotzat hartutakoak.

g) Premiamenduzko prozedura batean huts egintzat hartutakoak.

h) Euren ondarearen gainean egindako jarduketak iruzurrezkoak edo Herri Ogasunaren interesen aurkakoak direla ebazpen judizial irmo bidez deklaraturakoak.

i) Zergapeko baten ordezkari gisa aritutakoak, horretarako ahalorde nahikorik izan gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkarien errolda arautzen duen abenduaren 3ko 1.034/2010 Foru Aginduak 4. bis artikuluan jasotakoaren arabera.

j) Foru arau bidez aurreikusten den beste edozein zirkunstantzietan sartutakoak.

Pertsona juridikoak edo beste entitate batzuk badira aurreko letretan aipatutako kasuetakoren batean sartutakoak, haien administratzaileak inskribatu ahal izango dira erroldan.

3. artikulua. Arrisku bereziko zergadunen erroldan inskribatzearen ondorioak.

Pertsona edo entitate bat arrisku bereziko zergadunen erroldan inskribatzeak zerga araudian jasotako ondorioak izango ditu. Bereziki, erroldan inskribatuta egotea arrazoi nahikoa izan daiteke Ogasun eta Finantza Departamentuak urtez urte onartzen dituen zerga egiaztapeneko planetan sartu dadin eta Zergen Foru Arau Orokorrak 78. artikuluan jasotako kautelazko neurriak hartu daitezen, kudeaketa, ikuskapen edo zergabilketa prozedura baten edozein momentutan.

Errolda horretan inskribatzeak ez du Zerga Administrazioa salbuetsiko erroldako inskripzioak ekar ditzakeen ondorioak arrazoitzeko betebeharretik, betebehar hori izaera orokorreaz exijigarria denean.

4. artikulua. Arrisku bereziko zergadunen erroldako inskripzioa deuseztatzea.

Arrisku bereziko zergadunen erroldako inskripzioak kasu hauetan deuseztatuko dira ofizioz edo inskribatutako pertsona edo entitatearen eskariz:

1. Foru arau honen 2. artikulua a) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, artxibatze autoa edo absoluzio sententzia irmoa eman denean.

2. Foru arau honen 2. artikulua b) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, zigorra bete denean eta zigorrari edo, hala badagokio, erantzukizun zibilari lotutako zerga obligazioa ordaindu duenean.

3. Foru arau honen 2. artikulua c) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako erabakiaren bidez identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitu zaionean.

4. Foru arau honen 2. artikulua d) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, jarduketan jakinarazpena jasotzeko asmoz inskribatutako pertsona edo entitatea Ogasun eta Finantza Departamentuko bulegoetan aurkeztu denean eta ondorio horietako helbidearen berri eman duenean.

5. Foru arau honen 2. artikulua e) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, zehapen ez-diruzkoaren epea amaitu denean.

6. Foru arau honen 2. artikulua f) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, zerga obligazioa bete duenean.

7. Foru arau honen 2. artikulua g) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, kitatzeko zegoen zerga zorra eta, hala badagokio, zehapena ordaindu denean.

8. Foru arau honen 2. artikulua h) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, ebazpen judizial irmoa eman zenetik lau urteko epea igaro denean.

9. Foru arau honen 2. artikulua i) zirkunstantzia gertatzeagatik erroldan inskribatuta egonik, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru aginduz ordezkari gisa jarduteko birgaitua izan denean.

5. artikulua. Datuen segurtasuna eta interesatuentzako informazioa.

Arrisku bereziko zergadunen errolda datu pertsonalen babesari buruzko legeriak eta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, jasotako berme eta baldintzei lotuta dago.

Bereziki, behin beren nortasuna frogatuta, interesatuek eskubidea izango dute errolda horretan beren pertsonari buruz jasotako informazioa eskatzeko.

Era berean, administrazio egintza baten arrazoia zergadun bat errolda horretan sartzea denean, kontu hori jasota utziko da administrazio egintzan bertan edo horren jakinarazpenean.

Errolda horretan inskribatzea eta interesatuak eskatutako deuseztapena ukatzea jakinaraziko zaio zergadunari, Zergen Foru Arau Orokorrak III. tituluaren II. kapituluko 3. sekzioan jasotakoren arabera.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehen: Gipuzkoako Foru Aldundiak foru arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

Bigarrena: Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.